

BERMEOKO ALDE ZAHARREKO PLAN BEREZIAREN BERRIKUSPENAREN HERRITARREN PARTE-HARTZE ETA INFORMAZIO PROGRAMA

Herritarren parte-hartzea beraiei zuzenean ukitzen dizkien gai publikoetan erabakien hartzean biztanleriak parte hartzeko dituzten jarduera, prozedura eta tekniken multzoa da.

Herritarren parte-hartze proposamen honek Eusko Legebiltzarraren hirigintza arloko legedian, hau da, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, aurreikusitako herritarren parte-hartze bidea zabaltzea nahi du. Aldez aurreko parte-hartze maila bat eratu eta antolatu nahi da, hirigintzako dokumentuen elaborazioaren aurreko faseetan jarduteko, era horretan plan orokorraren idazketaren prozedura gidatzeko. Hala ere, informazio eta azaltze lanari dagokionez, arreta berezia jarriko zaie Aurrerakinaren eta Plan Berezia beraren dokumentuaren jendaurreko erakustaldi une zehatzei.

Metodologiari dagokionez, interakzio bikoitz baten oinarrituz asmatzen da:

Lehenik eta behin, hiritarrak, erredaktore-taldea eta proiektuaren udal arduradunen artean.

Bigarrenik, herritarren ondorio eta iritsiak Udalaren iritsi eta erabakiaren menpe jartzen dira, Plan Bereziaren dokumentuan kontutan hartu izateko.

AURREIKUSITAKO PARTE-HARTZE EKINTZAK

Proposatzen diren ekintzek ondoko helburuak landu nahi dituzte:

- Plan Bereziaren informaziorako ekintzak.
- Plan Berezia gauzatzeko herritarren parte-hartzea sustatzeko ekintzak.
- Plan Bereziaren berrikuspen kritikoa ahalbideratzen duten ekintzak.



Proposatutako Parte-hartze Programaren ikuspegi orokor bat izateko, eranstendena taula honek lan-fase bakoitzean proposatutako ekintzak adierazten ditu:

Plan Bereziaren informaziorako ekintzak	Plan Berezia gauzterako herritarren parte-hartzea sustatzeko ekintzak	Plan Bereziaren berrikuspen kritikoa ahalbideratzen duten ekintzak
<p>Informazioa eman eta dokumentua azaltzeko hitzaldiak</p> <p>Dokumentua udalaren webgunean eskuragarri izatea</p>	<p>Iritsi-talde kualifikatuekin banakako elkarrizketak (udal teknikariak, merkatariak, etab.)</p> <p>Iradokizunen postontzia eta e-maila irekita etengabe</p> <p>Sare sozialak</p>	<p>Dokumentuaren jendaurreko erakustaldiak</p> <p>Hiritarrei banakako arreta zerbitzuak jendaurreko erakustaldi izapidean zehar</p> <p>Iradokizun eta alegazioen erantzun izapidearen ekintza osagarriak</p> <p>Elkarrizketa berriz erredaktore taldearekin</p>



1.- PLAN BEREZIAREN INFORMAZIORAKO EKINTZAK

Informazioa eman eta dokumentua azaltzeko hitzaldiak

Ekintzaren helburua	<p>Biztanleri orokorrean zuzendua, ekintza xedea da lanen izaera eta helburua ulergarriago egitea. Asmoa da Plan Orokorraren idazketa eta tramitazio prozedura auzokideei hurbiltzea era horretan uler eta bereganatu dezaten Plan Bereziak lortu beharreko irizpide eta helburuen definizioa. Oso garrantzitsua da ere argi uztea hiritar eta inplikaturako eragileei (jabekide erkidegoak, merkatariak, etab.) norainokoa den parte-hartze hau eta zein izango den bere eragina, eta ez ematea itxaropen faltsuak eta ondorengo etsipenak.</p> <p>Hiritarrak informazio simple, argi eta praktikoa baten bitartez benetan udal mailako hiria antolatzeke plan orokor batek ematen dituen aukera eta edukiari buruz prestatzea da, era horretan ondorengo lan-saioetan izan daitezkeen eztabaidetan ez diskutitzeko plan orokor baten elaboratze eta parte-hartze prozedura baten barruan kontutan hartu ezin daitezkeen gaiak buruz, bere izaera, xede eta edukien parte ez izateagatik.</p> <p>Horregatik komenigarritzat jotzen da herritarren parte-hartze prozedura informazio-prestakuntza deituko dugun tarte batekin hastea.</p>
Dedikazioa	Hiritarrei zuzendutako hitzaldi bat egitea proposatzen da Planaren onarpen bakoitzean. Informazio izaera izango dute, Plan Bereziaren helburua eta eduki tekniko-juridikoak azaltzeko. Maila aproposa izango dute eta hitz egiteko era arrunt eta kolokiala erabiliko da, hitz teknikoak saihestuz.
1. Saioa	Aurrerakinaren jendaurreko erakustaldiarekin.
2. Saioa	Planaren hasierako onarpenarekin.
3. Saioa	Planaren behin betiko onarpenarekin.
Gauzatzeko baldintzak	<p>Hitzaldiak informaziorako diapositibak proiektatuz egingo dira. Dibulgazio-panel batzuk egingo dira ere azaldutako gaiak buruz. Udalaren lokaletan geratuko dira jendearentzat eskuragarri.</p> <p>Azalpen panel eta orrietan ikusi ahal izango dira oinarriko datuak, baita ere nortzuk diren erredaktore taldean, zeintzuk diren Plana egiteko faseak, eta, garrantzitsuena, zeintzuk diren parte-hartzearen une erabakigarrienak, maila ezberdinetan, Plan Berezia aurrera doan neurrian.</p>
Iraupena	<p>50 minutu hitzaldiak.</p> <p>50 minutu galderetarako txandak.</p>
Arduradunak	Hitzaldien emaileak arkitekto-zuzendaria eta letratu aholkularia izango dira Behar izan ezkerre, etorriko dira ere taldeko beste teknikari batzuk.
Tokia eta logistika	Udalak lokala utziko du. Proiektatuko diren material eta ponentziak erredaktore-taldeak prestatuko ditu.



Dokumentua udalaren webgunean eskuragarri izatea

Ekintzaren helburua	Lanen eta dokumentuen ezagupena errazteko proposatzen da Plan Bereziaren fase guztietan eratzten diren dokumentuak Udal webgunera "igotzea", beraiek deskargatzeko aukera emanez . Paper-kontsumoa gutxitzeko helburuarekin, saiakera egingo da hiritarrei ematen zaizkien dokumentu baten kopiak digitalak izatea, ahal bada, e-mailez bidaliz bere hartzaileari.
Iraupena	Plan Berezia idazten ari den denbora guztian zehar.
Arduradunak	Udalak egingo ditu proposamen hau garatu eta abian jartzeko beharrezkoak diren programatze, inplementazio, mantentze, bolkatze edo beste edozein prozedurako informatika lanak.
Logistika eta prestatzea	Erredaktore taldea konprometitzen da dokumentazioa Word eta Autocad lan-formatuetan edo pdf-an helaraztera webgunean jarri ahal izateko.



2.- PLAN BEREZIA GAUZATZERAKO HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO EKINTZAK

Iritsi-talde kualifikatuekin banakako elkarrizketak

Ekintzaren helburua	Plan Bereziak hartzen duen eremuaren gaur egungo egoerari buruzko analisi eta balorazioen elkar trukatzeko bat izatea da asmoa. Baita ere bere etorkizuneko ikuspegiari buruz. Hau erredaktore taldea eta, bere garrantzia edo eraginagatik, udalerriko elementu adierazgarriak diren zenbait eragileen artean egingo da.
Operatiba	Elkarrizketa egiteko eragileen zerrenda ondokoa izan daiteke, beti ere, era orientagarrian eta Udalbatzarekin batera behin betiko zerrenda egitea salbu: <ul style="list-style-type: none"> • Udal taldeak. • Kultur-elkarteak. • Kirol-elkarteak. • Ekonomi-sektoreak. • Eremu barruan dauden ekipamendu ezberdinak okupatzen dituzten elkarte edo erakundeak.
Iraupena	Plan Berezia idazteko lehen faseetan.
Arduradunak	Erredaktore-taldeak prestatuko ditu elkarrizketak eta galdetegiak. Merezki duen formaltasuna emateko Udalak deituko ditu elkarrizketak eta galdetegiak bidali.
Logistika eta prestatzea	Udalak jarriko du elkarrizketak egiteko tokia.




Iradokizunen postontzia eta e-maila irekita etengabe

<p>Ekintzaren helburua</p>	<p>Erredaktore taldeak iradokizunen buzoi bat eratzeko aukera proposatzen du, bai mailez, bai posta arruntaz funtzionatu dezakeena.</p> <p>Nahi den asmoa da Plan Bereziko dokumentuak ahal den ekarpen gehienak izatea. Nahi da ere hiritarren eta erredaktore taldearen arteko informazioa transmititzeko bide iraunkor bat eratzea, era horretan transmititze hori bakarrik legezko jendaurreko erakustaldi epeetara mugatuta ez egoteko.</p> <p>Azkenik, eta ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, komunikatzeko era honek errazten du arrazoi ezberdinengatik (mugikortasun arazoak, ohiko egoitza beste leku baten izateak, etortzeko ezintasuna, lan arazoak, etab.) programatutako ekintzetara etorri ez daitezkeen pertsona guztien parte hartzea.</p> <p>Era berean, erredaktore taldeak email bidez arreta egiteko aukera eskaintzen du, posta elektronikoko helbide bat emanez Plan Bereziaren garapena eta edukiari buruz balorazioak, iradokizunak edo ekarpenak jaso ahal izateko</p>
<p>Iraupena</p>	<p>Plan Bereziaren idazketak irauten duen bitartean</p>
<p>Arduradunak</p>	<p>Erredaktore taldea</p>
<p>Logistika eta prestatzea</p>	<p>Buzoia udalaren lokalen baten jarriko da. Erredaktore taldeak hilero begiratuko du buzoia.</p>



Sare sozialak

<p>Ekintzaren helburua</p> 	<p>Erredaktore taldeak uste du Plan Bereziaren idazketa egokitu daitekeela gizarte komunikazio era berrietara, esateko, Facebook sarea edo beste batzuk. Sistema honek ahalbideratuko duela gradualki argitaratzea Plan Bereziaren dokumentuaren elaborazio maila, bere tramitazio faseak, komenigarritzat jotzen den dokumentazioa sare sozialean jartzea, Udalaren planteamendu eta asmoak jarraituz, eta era horretan erredaktore talde eta hiritarren arteko komunikazio bide bat gehiago izatea.</p> <p>Iradozikun buzoia eratzen den kasuan baloratu dugun bezala, komunikazio era honek errazten du arrazoi ezberdinengatik (mugikortasun arazoak, ohiko egoitza beste leku baten izateak, etortzeko ezintasuna, lan arazoak, etab.) programatutako hitzaldi-ponentzia edo gainerako ekintzetara etorri ez daitezkeen pertsona guztien parte hartzea</p>
<p>Iraupena</p>	<p>Plan Bereziaren idazketak irauten duen bitartean</p>
<p>Arduradunak</p>	<p>Erredaktore taldea eta Udala.</p>
<p>Logistika eta prestatzea</p>	<p>Erredaktore taldea eta Udala.</p>



3.- PLAN BEREZIAREN BERRIKUSPEN KRITIKOA AHALBIDERATZEN DUTEN EKINTZAK

Dokumentuaren jendaurreko erakustaldia

Hasierako onarpeneko dokumentuaren erakustaldirako gainerako dokumentazio osagarria prestatuko da (triptikoak edota informazio eta azalpenerako kartelak). Planteatu ahal izango da ere prentsa idatzian, irratian, edota baita ere tokiko telebistan kanpainak egiteko aukera dokumentuari oihartzuna emateko eta lortzeko herriko hiritar kopuru gehienak ezagutu ahal izatea bere edukia.

Sintesi-dokumentua edo laburpen exekutiboa

Dokumentua hobeto ulertzeko, bereziki hizkuntza teknikoan azaltzen diren bere zehaztapenak, erredaktore-taldeak den sintesi-dokumentu edo laburpen exekutibo bat egingo du, hiritar orok erraz ulertu dezan, indarrean dagoen antolaketarekiko proposatzen diren aldaketen norainokoa azaltzen duten planoak erantsiz.

Gaikako kartelak

Erredaktore taldeak gaikako kartelak egingo ditu Planaren adierazgarrien diren planoekin. Beraiek tente jartzeko beharrekoak diren euskarri eta egiturak Udalak jarriko ditu.

Orrixka-triptiko berriemailea

Sintesi-orrixa bat egitea proposatzen da Plan Berezia idazten ari denaren berri emateko eta era horretan, hiritarren interesa sortarazteko.

Hiritarrei banakako arreta zerbitzuak jendaurreko erakustaldi izapidean zehar

Hasierako onarpeneko dokumentuaren jendaurreko erakustaldiarekin batera, erredaktore-taldeko kideak bertan izateko saioak proposatzen dira. Ondoko lan protokolo eta programa proposatzen da:

- Jendaurreko erakustaldian taldeko kideak bertan izateko uneak.
- Banakako kontsultak.



Jendaurreko erakustaldian taldeko kideak bertan izateko uneak

Proposatzen da erredaktore-taldeko kideak bertan izatea beraien espezializazioaren arabera jendaurreko erakustaldiak direnean.

Banakako kontsultak

Jendaurreko erakustaldia irekitzen den lehen egunetik, hala nahi duten hiritarrek eskatu ahal izango dute Udaletxean hitzordu bat izatea erredaktore-taldearekin. Hain zuzen, proposatzen da ondoko teknikoekin izan ahal izatea:

- Arkitekto-taldea.
- Hirigintza arloko abokatua.
- Historiagilea.

Bisitak antolatzeko, udal bulegoetan eskuragarri egongo da eskaera-orri bat. Bertan hala nahi duen hiritar orok bere izena eman ahal izango du, ondokoa adieraziz gutxienez:

- Izena.
- Kontaktuko telefonoa.
- Bere intereseko gaia. Teknikoa ala juridikoa.
- Ikusi beharreko gaiaren laburpena.
- Elkarrizketa izateko une edo ordurik aproposena.

Eskaerak ikusita, gaika antolatuko dira eta eguna eta ordua esleituko zaie elkarrizketei. Zentzu honetan, jotzen da elkarrizketa bakoitzak batz bestea 20 eta 30 minutu artean iraungo duela. Sistematika honek lortu nahi du, alde batetik, kontsultak, iradokizunak eta eskatzen diren informazioak pertsonalizatzea. Beste alde batetik, lortzen da arrazoizko irizpide bat ematea parte-hartze prozedurari pilaketak, itxaron beharrak eta deserosotasunak eragotziz hiritarrei.

Kontsulta partikularrak jendaurreko erakustaldiaren amaiera aldean kokatzea komeni da, dokumentua aztertzeko denbora eman ahal izateko.

Goiz edo arratsaldeko ordutegiak txandakatzea proposatzen da, aurkezten diren eskaeren arabera.



Iradokizun eta alegazioen erantzun izapidearen ekintza osagarriak

Iradokizun eta alegazioei erantzuteko erredaktore-taldeak egin behar dituen txostenei dagokionez, ondoko ekintza osagarriak egitea proposatzen da:

- Banaka erantzutea alegazio bakoitza, errepikatuta badaude ere.
- Udalak eskuragarri jartzen duen plantilla erabiltzea, era horretan alegazio bakoitzaren erantzuna dokumentu independente bezala gauzatzeko, eta era horretan, txosten bakoitzaren prestaketa eta banakako bidalketa errazteko.
- Eskatutakoa banan banan era xehatuan azaltzea.
- Eskatutakoa banan banan era xehatuan erantzutea.
- Alegazioen kokapenaren plano orokor bat egitea, kokatu ahal badira behintzat, bere berrikuspena errazteko, koordinatuz testu eta planoen arteko zerrendatzea.

Erredaktore taldearekin berriz elkarrizketa izateko aukera

Alegazioak erantzuteko izapidea dela eta, erredaktore-taldeak, aurkeztutako idatziak ikusita, erabaki ahal izango da beraien egileekin elkarrizketa osagarriren bat egitea azaldutako gaiak argitu edo zuzenean erantzuteko asmoarekin.

